

1. GAIA: SARRERA

1. Ekonomia eta politika Liburu horietan azaltzen da Ekonomiaren Zientziaren hasieran "Ekonomia Politikoa"z hitz egiten zela eta Ekonomia eta Politika gauza berdin bezala ikusten zirela.

2. Gizarte lanerako interesgarriak diren erronka ekonomikoak/ekonomiak gizarte lanari egindako ekarpenak

Gizarte Langintzan funtsezkoa da Ekonomia

- Baliabideen eskuragarritasunaren arabera, egin daitekeena eta egin ezin daitekeenaren arteko mugak ulertzeko.
- Baliabideen horniketa eta kudeaketaren ikuspuntutik, Gizarte Langintzako ekimenak ahalik eta efizientziarik handienarekin NOLA GARATU ulertzeko.

Gizarte langintzaren funtzioetako bat hiritarrei ongizate soziala bermatzea bada, ekonomiaren oinarriko kontzeptuak ezagutzea garrantzitsua da, hainbat arrazoigatik:

- Makroekonomia, ekonomiako magnitude handien bilakaera ulertu ahal izateko (langabezia, inflazioa, eta BGP) badago lotura BGParen eta errenten artean, langabeziari dagokionez denok lan duin bat bagenu, lehen esan bezela, zerbitzu batzuk ahalko genituen aurreztu. Espainiako eta munduko ekonomia ezagutzea, errenta per capita, BPG, errenta erabilgarria eta gainerako kontzeptuak interpreta ahal izateko. Baita munduko bankua eta Nazioarteko Moeta Fondoa bezalako erakundeak ere. Erakunde hauek ere ongizate sozialean eragiten dute, hauek txostenak egiten dituzte etengabe, eta hauek esaten dutena eragiten digu, gure ongizate sozialean, eta ekonomiak hauek ulertzen laguntzen du.
- Estatistika eta kontabilitatea (ekonomiaren tresnak), erakundeen kudeaketa eta administraziorako, proiektuak egiteko, finantzazioa bilatzeko etabar. Hau errazten dutelako, askotan, administrazioan edota erakundeetan hauek jakitea eragingo dizute.
- Enpresen antolaketa, enpresa txiki eta ertainek duten garrantziagatik. Hauek ingurunearekin lotura dute, haien komunitate lokalekin, eta baita lan baldintzetan ere.

3. Ekonomia jarduera/ zientzia eta sistema gisa

-Zientzia ekonomiko gisa: *zientzia enpiriko eta soziala (kontextu sozialetan eman behar da), elementuen-baliabideen urritasuna eta gizabanakoek beren beharrak nola asetzen dituzten aztertzen duena.* Nola baliabide urriekin behar horiek bete: hori da ekonomiak aztertzen duena.

-Jarduera ekonomiko gisa: *Lehengai eskuragarrien erabilpen optimoa bilatzen duen giza jarduera. (ahalik eta behar gehien betetzeko helburuarekin).* Efizientziarekin zerikusia du: baliabideak urriak badira ondo erabili behar dira, baina ondo hori definitzean badaude arazoak.

-Sistema ekonomiko gisa: *Toki jakin batean darabilten jarduera ekonomikoaren antolaketa. Bi sistema antagoniko existitzen dira: Kapitalista, prezioa eta irabaz-asmoaren baitan Inporta duena da irabaziak eta baliabideen jabea zein den., eta plangintzako ekonomia, komunismoa izango litzateke, estatuak indarra edukiz. Bien artean bada hirugarren sektore bat, ekonomia sozial deitua, irabaz-asmorik gabeko erakundeek osatua (aurrezki kutxak, fundazioak, kooperatibak, ONGak...)*

4. Merkataritzakoa ez den ekonomiaren arazoa

Merkatuko logikatik kanpo gelditzen dira erosi eta saldu egiten ez diren jarduera ekonomikoak baina hauek ongizate sozialarekin erlazio zuzena eduki dezakete.

- Etxeko ekonomia

Etxe gunean egindako hartu-emana da, lagunekin ala familia artean. Ez dago interesik (trukea batzuetan) ez eta etxetik kanpoko antolaketarik eta inmateriala da, zerbitzu emailea.

Merkatu logikatik kanpo dagoen ekintza, erabaki, prozesu eta erlazio bilkura hau inproduktiboa da, ez-kualifikatua eta maila-teknologiko baxukoa kontsideratua.

Ad. Iturgin enpresa bat kontratatu beharrean lehengusinak konpontzen duenean iturria

- Ekonomia komunitarioa edo irabazi asmorik gabea.

Donazioak, ONGak, borondatezko lana, elkarrenganako laguntza.. Ez da etxe barnean soilik gertatzen, erakundeen artean ere eman daiteke.

- Lan eta transferentzia publikoak

Diru-laguntza sozialak eta Estatutik jasotako transferentzia publikoak (hezkuntza, errepideak, edota pentsio ez kontributiboak). Zuk errepidea erabiltzean ez dezu ordaintzen, baina aurretik ordaindua egon da, zu izan ez bazara ere norbaitek zergekin ordaindu du

2. GAIA: EKONOMIAREN OINARRIAK

1. Ekonomiaren definizioa

Gizabanakoak bere beharrak nola asetzen dituen aztertzen duen zientzia, hau da, nola bihurtzen dituen baliabide urriak ondasun baliotsu eta hauek nola banatzen dituen.

Ekonomiak aztertzen du... (1) gizarteek nola erabiltzen dituzten baliabide urriak (NOLA) (2) ondasun baliotsuak ekoizteko, (ZER) eta (3) gizabanakoen artean banatzeko (NORENTZAT)

2. Eskasia eta eraginkortasuna, ekonomiaren funtsezko ideia gisa

Definizio honen baitan bi kontzeptu garrantzitsuak dira: urritasuna (ondasun ekonomikoak urriak direnean desioekin alderatuz) eta efizientzia (baliabide urrietatik ahalok eta probetzu gehien hartzea gizarteak).

3. Mikroekonomia eta makroekonomia

Mikroekonomia: Banakako entitateen jokabideaz arduratzen da; merkatu, enpresa, edo eta gizabanakoen jardura ekonomikoetan. Aintzindariak Karl Marx XIX(enpresen eta markatu kapitalistaren azterketa) eta Adam Smith XVIII(merkatua bakarrik dijoa ez da estatuaren esku-hartzerik behar) dira.

Makroekonomia: Munduko ekonomia, ekonomia globala. Ekonomiaren funtzionamendu orokorraz arduratzen da. Adibidez, inbertsioa eta kontsumoa, dirua eta interes tasak, herrien hazkundera, krisia... Aintzindaria John Maynard Keynes da.

4. Jarduera ekonomikoaren 3 arazoak

- Zer ondasun erosi eta zenbat
- Nola ekoiztu ondasunak
- Norentzat

5. Jarduera ekonomikoaren agenteak: Pertsonak, estatua eta enpresa

Enpresak publikoak ala kapitalak izan daitezke. Publikoak estatuak kudeatzen ditu eta kapital enpresak merkatuaren parte dira. Ekonomia sozial eta solidarioa izateko merkatu eta estatuaren arteko oreka bilatzen da, hau da, ekonomia mixto bat. Estatuak hainbat baliabide ditu esku-hartzeko, ala nola, gastu publikoa, enpresa publikoak eta moneta politika.

Jarduera ekonomikoaren antolakuntza ulertzeko oinarrizko eragile ekonomikoak eta sistema ekonomiko desberdinak identifikatu behar ditugu. Oinarrizko eragileak pertsonak ala gizarte egiturak izan daitezke. Pertsonak ekoizle gisa eta baita kontsumitzaile moduan. Gizarte egituren barnean enpresa pribatu edo publikoak egon daitezke.

Sistema ekonomikoaren arabera antolatzen dira gizarteak (zer, nola, norentzat). Sistema bakoitzean urriak diren baliabideak erabiltzeko eta banatzeko tresnak aztertzen ditu ekonomiak. Sistema ekonomikoak merkatu ekonomia, ekonomia zentralizatua ala mixtoa izan daitezke. Merkatu ekonomia ez da ekonomia pribatuaren sinonimo bat eta ekonomia zentralizatua ez da ekonomia publikoa.

Merkatu ekonomiaren barnean ekonomia pribatua eta merkatuko ekonomia publikoa daude eta ekonomia publikoaren barnean merkatuko ekonomia publikoa eta zuzendaritza zentraleko ekonomia publikoa sartzen dira.

6. Jarduera ekonomiko kolektiboaren mekanismoak: zuzendaritza eta merkatua

Gizataldeen jarduera ekonomikoa oinarrizko bi tresna hauen bidez antolatzen da:

- Zuzendaritza: Bai Estatu antolatzeko, bai eta enpresen barne antolaketa-erako ere.
- Merkatua: Enpresen arteko harremanak antolatzeko.

7. Jarduera ekonomikoaren antolaketa ekonomia primitiboan

Hasierako ekonomian ekoizle eta kontsumitzaile gisa jarduten dute pertsonak/familiek/leinuek. Ekoizten dutenetik zati txiki bat bakarrik elkartutrukutzen/merkataturatzen da beste pertsona batzuekin (soberakin gutxi).

8. Jarduera ekonomikoaren antolaketa ekonomia konplexuan

Ekonomia garatu batean, bi motako erakundeetan biltzen dira gizakiak jarduera ekonomikoa garatzeko: estatua eta enpresa (enpresa publikoa barne)

Oinarrizko bi tresna hauen bidez antolatzen da gizataldeen jarduera ekonomikoa.

- Zuzendaritza: Bai estatua antolatzeko eta baita enpresen barne antolaketa-erako ere.
- Merkatua: Enpresen arteko harremanak antolatzeko.
 - Ekonomia positiboa / ekonomia normatiboa

Positiboa: Errealitatea deskribitu (Zer, nola, norentzat)

Normatiboa: Arau etikoak eta balio iritziak erabili. Erabaki politikoen arabera.

9. Kapital enpresa edo enpresa kapitalista (egitura, helburuak, urteko kontuak)

Gure inguruan enpresa kapitalistak nabarmentzen dira. Bertan biltzen dira

- Enpresaren jabetza/titulartasuna hartzen duen inbertsiogilea (enpresaria)
- Soldatapeko langileak (ez dira enpresaren jabe eta haien indarlana saltzen dute soldata baten truke)

Kapital enpresaren helburua ez da ondasunak eta zerbitzuak ekoiztea, epe ertaineko etekina maximizatzea baizik. Etekin maximizatzeak ondorio hauek dakartza:

- Sarrerak maximizatzea (salmentak batez ere)
- Gastuak minimizatzea (erosketak eta lansariak batez ere)

Etekinak maximizatzeako joera merkatuak eta beste enpresen lehiak mugatzen dute, gehiegikeriak mugatuz. Estuak ere esku hartzen du hainbat egoeretan.

10.Kapitalistaz bestelako enpresa ereduak

Kapitalistaz besteko eredu batzuk:

- Soldatapeko langilerik gabeko autonomoak
- Ekonomia sozial edo solidarioko enpresak
- Enpresa publikoak: Erakunde publiko batek zuzen zein zeharka kontrolatzen dituenak
- Enpresa mixtoak

Enpresa publikoen jarduteko erak honako hauek mugatzen dute:

- Haien kontrola duen erakunde publikoaren zuzendaritzak AD upv/ehu
- Merkatuaren tresnak AD wosbagen

11.Etekin eta lehia

Etekin enpresen urteko irabazi eta galeren arabera da. Urteko sarrerak salmentek osatzen dute eta gastuak berriz, anitzak izan daitezke, hala nola, soldatak, erosketak.

12.Merkatua. kontzeptua eta funtzionamendua

merkatua:

- Milioika enpresa eta kontsumitzaileek ondasun eta zerbitzuen borondatezko elkar trukeak burutzen dituzte. Prezio eta merkatu sistema ikustezinek koordintzatzen dituzte beren jardura eta asmoak

Merkatuaren oinarriak:

- Eragile asko (pertsonek ala enpresak) produktuak eta zerbitzuak eskatzen eta eskaintzen
- Etekin (enpresariaren helburu gida)
- Lehia (etekina moldatzeko tresna gisa)
- Etekin maximizatzea da enpresaren helburua, ez merkatu librea sustatzea
- Merkatu librea lehiaren bitartez etekinaren etsaia da

Merkatuaren funtzionamendua:

- Merkatuak berak merkatua desegin du eta zenbaitetan berregiten du
- Erosleek eskaria determinatzen dute
- Saltzaileek eskaintza determinatzen dute

Merkatu motak:

- Lehia perfektua
- Lehia inperfektua (monopolio, oligopolio..)

13.Prezioa

Prezioa ondasunaren balioa da dirutan. Ondasunak borondatez elkartrukatzeko balioa. Prezioek seinaleak bidaltzen dituzte eta enpresa eta kontsumitzaileek aukerak egiten dituzte, hau da, enpresa eta kontsumitzaileen erabakiak koordinatzen dituzte (altuek kontsumitzaileak moteldu eta baxuek ekoizleak)

Produktzio faktoreek eragin zuzena dute prezioetan, hauek ekoizteko erabili diren baliabideak dira: lana, lurra eta kapital ondasunak. Enpresek ondasun eta zerbitzuak ekoizti eta saltzen dituzte eta produktzio faktoreak erosi eta erabiltzen dituzte. Familiek

ordea, ondasun eta zerbitzuak erosi eta kontsumitzen dituzte eta produkzio faktore baten jabe dira eta hau salde egiten dute. Lan indarrearen saleroketa produkzio faktoreen merkatuan egiten da.

14. Ekonomiaren zirkuitua

Ekonomiaren zirkuituan bi merkatu mota daude: Ondasun eta zerbitzuen merkatua eta produkzio faktoreen merkatua. Enpresek produkzio faktoreak erabili eta erosten dituzte (lurra, kapitala eta lana) eta ondasun eta zerbitzuak eskaintzen dituzte. Familiak bestalde kontsumitzaile eta ekoizle papera egiten dute, produkzio faktore bat dute (lan indarra) eta hau saltzen dute soldata baten truke.

15. Lehia perfektua eta inperfektua

Lehia perfektuan enpresa berriak merkatuan sartzeko aukera dute eta bertan irautekoa. Lehia inperfektuan berriz, merkatu jakin baten kontrola enpresa gutxik edo enpresa batek dute eta honek ez du uzten beste enpresen merkaturatzea.

16. Eskaria

Eskatutako kopurua, ondasun jakin baten merkatuan erosleek erosi dezaketen eta nahi duten kopurua. Eskariearen ondasun baten prezioa eta eskatutako kopuruaren arabera. Eskaria determinatzen duten aldagaiak

- Merkatuaren prezioa
- Kontsumitzaileen errenta
- Espektatibak
- Gustuak
- Erlazionaturiko ondasunen prezioa

Eskari kurba

Malda negatiboa duen kurba da, prezioa eta eskatutako kopurua erlazionatzen dituena. Merkatuko eskariak ondasun edo zerbitzu jakin baten eskari indibidual guztien batura adierazten du.

Eskatutako kopuruan aldaketa vs eskariaren aldaketa

- Eskatutako kopuruan aldaketak: Aldaketa eskari kurban zehar, produktuaren prezioan emandako aldaketa baten ondorio
- Aldaketa eskarian: Prezioa ez beste aldagai baten aldaketaren ondorioz eskari kurbaren desplazamendua, eskubira ala ezkerrera

17. Eskaintza

Eskaintako kopuruak saltzaileek ondasun jakin baten merkatuan saldu dazaketen eta nahi duten kopurua adierazten du. Eskaintzaren legeak dio erlazio zuzen eta positiboa sagoela ondasun baten prezioa eta eskaintako kopuruaren artean.

Eskaintza determinatzen duten aldagaiak:

- Merkatuko prezioa
- Teknologia
- Faktoreen prezioa
- Espektatibak
- Ekoizle kopurua

Eskaintza kurba: Ondasun baten prezioa eta eskaintako kopurua erlazionatzen dituen malda positibodun kurba da. Merkatuko eskaintzak ondasun edo zerbitzu baten saltzaile guztien eskaintza indibidual guztiak barne hartzen ditu.

Eskaintako kopuruaren aldaketa vs aldaketak eskaintzan

- Aldaketak eskaintako kopuruan: Mugimendua eskaintza kurban zehar, ondasunaren merkatuko prezioaren aldaketaren ondorio
- Aldaketak eskaintzan: Prezioa ez beste aldagai baten aldaketaren ondorio, eskaintza kurban desplazamendua, eskubira ala ezkerrera.

18. Orekaren prezioa eta kantitatea

Orekako prezioa: Eskaintza eta eskaria orekatzen dituen prezioa, Eskaintza eta eskari kurbaren gurutzatzea

Orekako kopurua: Eskaintza eta eskaria orekatzen dituen kopurua. Eskaintza eta eskari kurbaren gurutzatzea

Orekako Prezio eta Kopuruek ez dute adierazten benetan zenbat eta zein preziotan saltzen den, Merkatuaren joera norantza doan baizik

19. prezioen kontrolak

- Orohar merkatuko prezioa bidezkoa ez dela erosleentzat zein saltzaileentzat uste denean jartzen dira. Gobernuak prezio maximo eta prezio minimo deiturikoak finkatzen ditu.

Prezio Maximoa

- Ondasun bat saldu daitekeen legezko prezio altuena

Prezio Minimoa

- Ondasun bat saldu daitekeen legezko prezio baxuena.

Gobernuak prezio maximoak jartzean... orekako prezioaren gaintik jartzen bada ez da efektiboa eta orekako prezioaren azpitik jartzen bada efektiboa da baina urritasuna sortzen du.

Urritasuna prezioa orekako prezioaren azpitik dagoenean gertatzen da. Eskatutako kopurua eskainitakoa baino gehiago denean. Honen aurrean, saltzaileek prezioa igoko dute erosle askok erosi nahi dutelako, eta ondorioz, orekara hurbilduko dira.

Soberakina bestalde, prezio orekako prezioaren gaintik dagoenean gertatzen da. Eskatutako kopurua baino gehiago eskaintzen denean. Honen aurrean saltzaileek prezioa apalduko dute salmentak igotzeko eta ondorioz, orekara hurbilduko dira.

20. estatuaren papera. kontzeptua

Estatuaren papera, merkatuaren akatsak konpontzea da:

- Akatsa efizientzia-eza denean, estatuaren helburuak konpetentzia sustatzea, merkatuetan esku-hartzea eta jarduera onuragarriak bultzatzea da. Horretarako, monopolioaren aurkako legeak, kutsaduraren aurkako legeak, tabakoaren aurkako ordenantzak, etab ezarri ditzake.
- Arazoa disparekotasun handiegiak direnean, estatuaren helburua errenta birbanatzea izango da eta horretarako, errenta aberastasunaren gaineko zerga progresiboak sustatu behar ditu eta transferentziak/laguntzak eman behar ditu.
- Arazo makroekonomikoak direnean, estatuaren helburua egonkortasunerako neurri makroekonomikoak hartzea eta hazkundera sustatzea izango da. Horretarako, moneta politika (moneta-eeskaintza eta interes-tasak aldatu), politika fiskala (zergen eta gastuen egitaraua), inbertsioa hezkuntzan, aurrezki-tasa nazionala igo, defizit publikoa murriztu, etb egin dezake.

21. Merkatuaren akatsak. Eraginkortasun eza

Efizientzia eza hainbat egoerengatik izan daiteke. Monopolio edo oligopoliorik badago merkatuaren jabe dena, kanpo eraginak oso altuak badira eta ondasun publikoen kasuan hauek efizienteak ez badira.

Lehia ez perfektuari dagokionez, estatuaren helburu nagusia konpetentzia sustatzea izango da, horretarako, monopolioaren aurkako legeak plazaratuko ditu. Kanpo eraginak enpresek edo gizabanakoek merkatutik kanpo daudenei derrigorrezko kostu eta irabaziak inposatzean datza. Honen aurrean estatuaren helburua merkatuan esku hartzea izango

da zergak edo pizgarriak jarriz (kutsaduraren aurkako legeak, tabakoaren aurkako ordenantzak..). Azkenik ondasun publikoak produkzioa estatuaren eskuetan jartzen denean sortzen dira. Hauek ekimen pribatuak pizgarriak produzitzen ez dutelako edo efizientzia falta zaielako sortzen dira. Ondasun publikoak zergen bidez finantzatzen dira. Honen aurrean estatuaren helburu nagusia jarduera onuragariak bultzatzea izango da, hainbat ekintza edo zerbitzu publiko eskainiz (Nazio defentsa, hezkuntza publikoa..)

22.Merkatuaren akatsa. Gehiegizko deberdintasunak

Gehiegizko disparekotasunak daudenean (ezberdintasun onartezinak errentan eta aberastasunean) Estatuaren helburu nagusia errenta birbanatzea izango da, errenta eta aberastasunaren gaineko zerga progresiboak ezarriz, transferentziak edo diru laguntzak emanez eta abar.

Merkatu mekanismoak ez du ziurtatuko sozialki justu den errenta banaketa. Honen aurrean, ekonomiak azter dezakeena birbanaketa sistema desberdinen kostu eta irabaziak izango dira. Zein da pobrezia maila onargarria/justua? Ekonomiak lagun gintzake errenta mailak igotzeko programarik eraginkorrenak aukeratzen.

23.Merkatuaren akatsak: Hazkundera eta egonkortasuna

Arazo makroekonomikoak dira ziklo ekonomikoak (inflazio eta langabezia tasa handiak) eta hazkunde ekonomiko geldoa. Honen aurrean egonkortasunerako neurri makroekonomikoak hartzen dira hazkundera sustatzeko asmoz. Hala nola, moneta politika (moneta eskaintza eta interes tasak aldatu), politika fiskala (zergen eta gastuen egitaraua), Inbertsioa hezkuntzan, aurrezki tasa nazionala igo eta defizit publikoa igo. Baliabide hauek produkzio enplegu eta infazio mailari eragin diezaioke, ziklo ekonomikoetako arazoak zuzenduz eta hazkunde tasa igoz.

24.Aurrekontu publikoa

Defizita: gastu publiko-sarrerak

Sarrerak: zergak..

Gastu publikoa: Hezkuntza, osasungintza, pentsioak, defentsa...

Defizitaren finantziazioaren ondorioz gero eta handiagoa bihurtu ohi da zor publikoa.

25.Moneta politika

Estatuak bakarrik du dirua sortarazteko ahalmena eta banku zentralak jaulkitzen dute dirua. Hauek bankuei ematen die dirua maileguren bidez eta bankuek familiei, enpresei eta gobernuei.

Moneta politikaren tresnak: - Hedatzailea: Mailegu gehio bankuei, mailegu honen interes tasak murriztu. - Murriztailea: Banku zentralak bankuei ematen dizkien maileguak murriztu, mailegu horien interes tasak igo.

26.Zergak, xedea eta ondorioa

Gobernuak zergak biltzen ditu, ondoren gastu publikora bidaltzeko diru sarrera gisa.

Ondorioak:

- Merkatuko jarduera moteldu
- Ondasun bat zergapetzean, saldutako kopurua jeitsi egiten da.
- Erosleek eta sailtzaileek zergaren zama banatzen dute.

27.Sistema ekonomikoak. Zeintzuk dira

Teorian, sistema ekonomikoak hiru multzotan banatzen dira. Ekonomia publikoa, ekonomia pribatua eta ekonomia mixto

Errealitatean berriz, mixtoa da herrialde guztietan. (aukera teorikoen nahasketa).

28. Kapitalismoa

- Industri Iraultzarekin sortzen da (XVIII mendearen amaiera – XIX. Mendearen hasiera)
- Enpresa "kapitalistetan" oinarritutako merkatuekonomia
- "Eskaintza" eta "eskaria"ren bitartez arautzen da, berez, merkatua
- Estatuak ekonomian duen esku-hartzea mugatu behar da.
- Gero eta bateratze/kontzentrazio handiagoa, eskala-ekonomien arabera
- Baliabide naturalak pribatizatu, ondasun indibidual bihurtu
- Produkzio faktoreen pribatizazioa
- Mozkin pertsonal eta kolektiboa
- Konkurrentzia desberdina (*konkurrentzia=lehia*)
- Merkatua eskaintza/eskarien bitartez erregulatu
- Prozesu historiko motela baina etengabekoa.

Horren ondorioz:

- .. Enpresak gero eta handiagoak dira
- .. Gero eta enpresari gutxiago daude
- .. Gero eta autónomo gutxiago
- .. Gero eta soldatapeko langile gehiago

Gaur eguneko biztanleria aktiboan:

- .. Soldatapeko langileak, %85
- .. Autonomoak, %10
- .. Enpresariak, %5

29. Sozialismoa

- Kapitalismoa gainditu nahi duten ideologiak.
- Abiapuntua: XIX mendearen hasieran enpresari eta langileen artean sortu ziren kontraesanak.
- Sozialismo "utopiko" edo "kooperatibista" gisa sortzen da. Langileek enpresaren jabetza hartzea proposatzen dute.
- Produkzio faktoreen kolektibizazioa
- XIX mendearen erdian: Estatu-Sozialismoa: Sozialismoa eraikitzeko, Estatuak hartu behar du enpresen kontrola
- Hasierako herrialde sozialistak: Sobiet Batasuna 1917-1990. Estatuak hartzen du enpresen jabetza eta zuzendaritza zentrala.

Merkatuko Sozialismoa:

- A. Sozialismo Autogestionarioa: (Yugoslavia 1945-1990). Lehian ibiltzen diren merkatuko enpresa publikoak).
- B. Herrialde emerjenteak/gainerakorak 1990tik Aurrera (Txina, Errusia, ...)
- Enpresa Handiak eta Gobernuaren arteko harremana: Enpresa Handiak Gobernuaren menpe
- Kapital-enpresek pisu handia dute (enpresa txiki, ertainak eta estrategikoak ez direnak)
- Banku-sektorea eta enpresa estrategikoen jabetza publikoa
- Eragin publiko handia enpresa pribatu handietan

30. Ekonomia mistoa

Gaur egungo errealitatean, ekonomia mistoak dira herrialde guztiak. Modu batean edo bestean, merkatu eta zuzendaritza zentrala eta ekonomia pribatu eta publikoa nahasten dituzte.

Erreferentzia gisa: ekonomia pribatua/merkatukoan muturrekoa den EEBB eta ekonomia publikoan/zuzendaritza zentralekoan pisu handiena Ipar Korea.

31.BPG: definizioa/osagaiak

BPGren helburua jarduera ekonomikoa neurtzea da. Eta "zirkuitu" ekonomikoaren fase ezberdinetan egin daiteke hori. Ekoiztutako ondasun eta zerbitzu guztien moduan edo ekonomiaren gastu/kontsumo osoa bezala edo lurraldeko biztanleek eskuratutako errenta guztien moduan.

Urte batean, eskualde batean ekoiztutako produktu eta zerbitzu guztiak. BPG: C+I+G+XN

c: Kontsumoa

I: Inbertsioa

G: Gastu publikoa

XN: Atzeritarrek egindako gure produktuen kontsumoa(esportazioak)- Gure herrialdeko herritarrek burutzen dituen atzerriko produktuen kontsumoa(inportazioak).

JARDUERA EKONOMIKOAREN NEURKETA

Errenta adierazleak:

- BPG
- NPG (Nazio Produktu Gordina)
- Nazio Produktu Netoa (NPN)
- Errenta Nazionala (EN)
- Errenta Pertsonala (EP)
- Errenta Pertsonal Erabilgarria (EPE)

32.BPG erreala eta nominala

BPGr: erreala: Prezio konstanteetan neurturiko ondasun eta zerbitzuen produkzioa.

BPGn: Prezio kornienteetan neurturiko ondasun eta zerbitzuen produkzioa.

▲ BPG Erreala = ▲ BPG Nominala – Inflazio Tasa

BPG deflaktatzailea: Prezio mailaren indizea. Honela kalkulatzen da: BPGn/BPGr x100

33.Bizatanleko BPG

Bizatanleko BPG = BPG per capita = Errenta per capita

Lurralde baten garapen ekonomikoaren adierazle zuzena.

Herrialde bi alderatzeko, bien artean dagoen salneurrien aldea hartzen da kontuan, EAPren (Erosteko Ahalmen Parekatua)ren arabera neurtutako biztanleko BPGren bitartez.

34.Inflazioa informazio ekonomikoan

KPI = Kontsumorako Prezioen Indizea Kontsumitzaile adierazgarri batek ondasun eta zerbitzuetan egindako gastua

$$\text{Inflazio Tasa} = \frac{\text{KPI } t - \text{KPI } t-1}{\text{KPI } t-1} \times 100$$

Interes tasa erreala = Interes tasa nominala – Inflazio tasa

▲ BPG Erreala = ▲ BPG Nominala – Inflazio Tasa

3. GAIA

3.1. GLOBALIZAZIOA ETA (NEO) LIBERALISMOA

3.1 Bigarren mundu-gerratik aurreko fase ekonomikoak

- Gerra ostekoa (1945-80)
- Garai (neo)liberala/Globalizazioa (1980-2008)
- Post-globalizazioa (2008-2010)

3.2. Gerraosteko ekonomia

- Hazkunde maila altua
- Kapital eta Lanaren artean garapen orekatua
- Sindikatu indartsuak
- Sektore Publiko Enpresariala indartsua
- Ongizate-Estatua eraikitzen da
- Gerra-hotzaren testuingurua

3.3. Zer da globalizazioa?

- 70gn. urteen krisiaren osteko erreakzioa
- Gerra osteko eredia zalantzetan jarri
- Globalizazio hitzak, nazioarteko mailan enpresa eta estatuen arteko interdependentzia eta harreman ekonomiko hazkorren berri eman nahi du. Harreman horiek, ondasun, zerbitzu eta ekoizpen faktoreen mundu mailako merkatu bakar baten osaerara garamatzatela ematen du.
- Mezu ofiziala: "Guztiak aprobetxa ditzaketan erronka eta aukera anitzen irekiera suposatzen du, baldin eta egoera berrira egokitzen asmatzen badute".
- Aurkakoak: Trump, Brexit-a, herrialde emerjenteak?

3.4. Globalizazioaren eragileak

- Pribatuak:
 - Enpresa tradizionalak (ETN)
- Publikoak:
 - Mundu Merkataritza Erakundea (OMC)
 - Nazioarteko Moneta Funtza (FMI)
 - Munduko bankua (BM)
 - Estatuak, gobernuak eta instituzioak
- Nazioarteko merkataritza hitzarmenak
 - TTIP, CETA...

3.5. Globalizazioa denboran

- Globalizazioa egungo hazkunde ekonomiko kapitalistaren etapa da eta orain dela 40 urte inguru hasi zen
 - 80ko hamarkadaren hasieran hasi zen kontzeptua erabiltzen, 70ko hamarkadaren amaierako urteen aldean izandako aldaketa estrukturalak adierazteko
 - Sobiet Batasunaren porrotak globalizazioaren hedapena erraztu zuen, baina ez zen izan globalizazioaren jatorria

- Aurrerakuntza teknologikoen ere errazten dute; hala ere, teknologia berriak ez dira globalizazioaren jatorria eta teknologiek ez dute globalizazioaren nondik norakoa zehazten.
- Globalizazioak mundu mailako merkatuaren sorrera dakar hainbat oztopok banatutako merkatu nazionaletatik abiatuta:
 - Integrazio ekonomikoaren bitartez, nazio-arteko haremanetatik mundu mailako merkatu bakarrerako bidea egiten da
 - Liberalizazioak, hots, oztopo babesleen desagertzea, bultzatzen du globalizazioa; globalizazioa ez da fenomeno naturala, giza-erabakia baizik.
- Globalizazioak funtsezko hiru esparru ditu:
 - Ondasun-merkataritzea
 - Kapital-fluxuak
 - Pertsonen mugimenduak

3.6. Globalizazioa zalantzan jartzea

- 2007an finantza-krisiaren leherketa izan zen
- Finantza-globalizazioaren gainbehera:
 - Enpresa eta bankuen porrot orokorrak atzerrian dituzten finantza-inbertsioen ondorioz
 - Arriskuaren ikuspegiaren galera nabaria
- Merkataritze-globalizazioaren gainbehera:
 - Europako periferia eta AEB-ren egitura produktiboaren hondatzea
 - Txina eta Alemaniaren garapen ereduaren aurkako kritikak (esportazioei lotuegiak izateagatik)
 - 2016: Donald Trump/ Txinarekiko merkataritze-negozioak/ Brexit...

3.7. (Neo) liberalismoa. Zer da?

1980tik, politika ekonomikoaren aldaketa neoliberalismoa (Kostu sozial eta laboralak murrizteko asmoa)

Diskurtso (neo)liberala eta bere helburua:

- merkatu askeak: estatu gutxiago eta merkatu gehiago
- aurrekontu publikoen oreka da helburua; zergak apaldu edo mantendu
- egitasmo neoliberalaren benetako helburua (ez onartua): mozkinak eta irabazi-tasa handitu
- desoreka soziala apropos bilatzen da, ez da nahigabe sortutako kaltea
- aurrekontu publikoetan oreka lortzeko, gastu publikoa txikitu nahi du (neo)liberalismoak (% G/BPG) eta, orokorrago, estatuaren parte-hartzea mugatu - gizarteak kontrako mugimenduak sortzen ditu, bereziki gastu sozialari lotutakoan krisialdi-larrialdi egoerak erabiltzen dira murrizketak gauzatzeko

3.8. Neoliberalismoaren azken helburua

Zerga-bilketa osoa mantendu edo murriztu eta zerga-sistemaren progresibotasuna apaldu nahi du (neo)liberalismoak: zeharkako zergak gehitu (BEZa, zerga bereziak) eta zerga zuzenak apaldu (errenta, sozietate z., ondare z. etab.)

3.9. Neoliberalismoaren estrategiak

Aurrekontu publikoetan oreka lortzeko, gastu publikoa txikitu nahi du neoliberalismoak. (%G/BPG) eta, orokorrago, estatuaren parte hartzea mugatu.

Gizarteak kontrako mugimenduak sortzen ditu, bereziki gastu sozialari lotutakoan. Krisiali larrialdi egoerak erabiltzen dira murrizketak gauzatzeko.

3.10. Neoliberalismoa eta kontu publikoak

Zerga bilketa osoa mantendu edo murriztu eta zerga sistemaren progresibotasuna apaldu nahi du neoliberalismoak. Zeharkako zergak gehitu (BEZa, zerga bereziak) eta zerga zuzenak apaldu (errenta, sozietate z. , ondare z., eta ab).

80. Hamarkadatik, enpresek ordaindu beharreko zergen portzentaiak txikitzen ari dira. Iparraldean eta gainerako herrialdeetan.

Politika fiskal horren ondorioz:

- Enpresen mozkinak handitzen dira
- Errentaren banaketan desorekak handitzen dira.
- Krisialdiak gertatzean eta sarrera publikoak txikitzean, estatuek defizita kontrolatzeko gastu publikoa murriztu behar duten.

3.11. Globalizazio (neo)liberalaren emaitzak

Iparraldean mozkinen errekupezioa, eta desoreka handiagoak; ekonomiaren finantziarizazioa, hazkunde txikiagoa, krisialdia eta zor handiagoa; - Hegoaldean, arrakasta handi batzuk (Txina...), baina desoreka eta pobreziak diraue.

1) Iparraldean, mozkinen errekupezioa eta desoreka handiagoak lanaren errenten portzentaia BPGan nabari txikitu da 80ko hamarkadatik, neurri handi batean lan-merkatuaren "malgutasun" neurrien ondorioz (prekarizazioa) errentaren banaketa desorekatuagoa enpresen mozkinen gorakada (irabazi-tasa)

2) finantzarizazioa, desenplegua eta krisialdia 80ko hamarkadatik aurrera ekonomiaren finantzarizazioa= mozkinak finantza-merkatuetara zuzentzen dira, produkzio-inbertsiora (kapital eraketa gordina) baino neurri handiagoan finantza-mundua benetako ekonomia baino gehiago handitzen da espekulazio-burbuilak finantza-krisiak, eta batzuetan horien ondoren krisialdia.

Lanaren errenten portzentaia BPGan nabari txikitu da 80ko hamarkadatik, neurri handi batean lan-merkatuaren "malgutasun" neurrien ondorioz (prekarizazioa) errentaren banaketa desorekatuagoa enpresen mozkinen gorakada (irabazi-tasa)

3.12. Lan-errenten pisu-galera

Arrazoiak:

INFORME MCKINSEY:

CRECIENTE INTENSIDAD DEL CAPITAL

CRECIENTE INTEGRACIÓN / CONSOLIDACION EMPRESARIAL

IMPACTO DE LA RELACION DE FUERZAS ENTRE EMPRESARIOS Y TRABAJADORES
OTRAS RAZONES:

EXCEPCIONALIDAD DEL PERIODO 1920 – 1980

DOS GUERRAS MUNDIALES

LA EMULACION CAPITALISMO-SOCIALISMO

IMPACTO DE LA REVOLUCIÓN ENERGÉTICA (Gas, petróleo, electricidad)

3.13. (Neo)liberalismoari buruzko hipotesi kezagarriak

1) Benetako salbuespena, beharbada, ez da (neo)liberalismoa izan, 1920 eta 1970 artean sendotutako eredu soziala baizik.

2) 1920-80 urteak salbuespena izatearen balizko azalpenak.

3.14. 20. eta 80. urteen arteko salbuespenari buruzko azalpen posibleak

1. Sobiet batasunaren mehatxua

2. Bigarren mundu gerra

3. Energia iraultzaren eragina: Petróleos, gas eta elektrizitatea

- Herrialde barneko errenta banaketan dauden desorekak etengabe handitu ziren OCDE/ELGA ko herrialde gehienetan.
- Aberatsen den populazioaren %1aren partaidetza aberastasun nazionalen handitu egin da, batez ere herrialde anglo saxoietan eta, neurri txikiagoan, herrialde nordikoetan.

3.15. Ekonomiaren finantzaketa

Finantzazioa + gain zorpetzea

- Liberalizazioaren eta desarautzearen ondorioz finantza merkatuetan eragiketa gehienak espekulazio helburuekin egiten dira: finantza krisialdiak errepikatu egiten dira, eta horietariko batzuk krisialdi ekonomiko sakonek sortzen dituzte.
- II . MG ondorengo hazkunde ekonomikoan (1945-73) krisialdi larri bakarra izan zen, keynestar parte hartzeak ziklo ekonomikoak leuntzen baizituen.
- 80 ko hamarkadatik ordea, politika neoliberalak ziklo ekonomikoen eragina agerian utzi ditu.
- Iparraldean 4 krisialdi larri, oraingoa = depresio handia.

3.16. Muturreko pobrezia diskriminazioa

- Munduko kapital merkatuen aktiboak 12 bilioi dolarretik (1980an) 194 bilioi dolarera pasatu ziren (2007): x16,2 aldiz
- 1980-2007 tartean munduko BPG a x5,6 aldiz.

Azkeneko 40 urteetan, muturreko pobrezia nabari murriztu da zenbakietan (1900 milioi 1990ean eta 650 milioi 2018an) eta biztanleriaren ehunekotan (%52tik %26ra)

Txina da batez ere arrakasta horren jatorria, 850 milioi lagun atera ditu muturreko pobrezia egoeratik.

Hala ere, hegoaldeko beste herrialde batzuetan (Afrikan batez ere) handitu egin da muturreko pobrezia. Hemendik aurrera, Indian murriztuko da batez ere.

3.17. Post-globalizazioa

-Globalizazioaren geldotze edo amaiera

-Gain-zorpetzearen geldotzea

-Mundu multipolar baterantz

-Herrialde emerjenteen erronka

-Txinaren erronka

-Europaren erronka

3.18. Mundu multipolar baterantz

-Arrazoi ekonomiko eta geopolitikoak

- Mendebaldearen hegemonía Multipolaritateak ordezkaturia izaten ari da dagoeneko.

- Herrialde emerjenteak (Txina, Errusia, India) lehen mailako potentziak bihurtu dira, hainbat arrazoigatik (indar ekonomikoa, politikoa zein militarraigatik, biztanle-kopurua, ...). Batez ere, Mendebaldearen egiturazko ahuleziagatik.

-Europa eta AEB, gero eta gehiago, munduko potentzien arteko "beste bat" bihurtzen ari dira.

3.19. Herrialde emerjenteen erronka(Txina, Errusia, India, Iran, ...)

-Munduko ekonomian gero eta indar handiagoa

-Egitura multipolar berriaren funtsezko oinarria

-Ideologia eta politika ekonomiko anitzak

-Mendebaldearekiko oinarritzko ezberdintasunak gobernuak eta enpresa handien arteko harremanen aldetik:

- Gobernuak benetako agintea dira herrialde emerjenteetan
- Mendebaldeko herrialdeetan, enpresa handiek izan ohi dute benetako nagusitasuna.

3.20. Txinaren erronka

-BPGren arabera (EAP/PPAn neurtuta) lehenengo potentzia da dagoeneko. -Etengabeko inbertsio intentsiboa azpiegituretan, prestakuntzan eta teknologian

-I+Gren ahalegina: Europar Batasunarena baino handiagoa da Txinarena. -I+Gren ahalegina: Txinako eskualde aurreratuena Alemania, Suedia, Danimarka edo Finlandiarena baino handiagoa da.

-Txinaren industriaren errobotizazio maila: Erresuma Batua eta Txekia baino handiagoa eta Finlandiaren parekoa.

-Oraingo erronkak:

- Gainzorpetzearen eragina xurgatu
- Barne-kontsumoa gero eta indartsuagoa
- Mundu mailako merkatu teknologikoetan kokatu
- Erronka demografikoari aurre egiteko: inbertsio teknologikoa / errobotizazioa.

3.21. Europaren erronka

-Berlingo Harresiaren Erortzaren ondoriozko itzaropenak

-Maastrichteko Ituna (1993). Inflexio-puntua

-Gero eta ahulezi ekonomiko handiagoa

-Sostengarritasunaren aldetiko erronka larriak (Gain-zorpetzea, demografia)

-Azken hamarkadeetako garapen eredia ordezkatzeko gai den eredu berri baten beharra

-Aldaketaren lidergoa hartzeko gai diren egitura politikoen beharra.

3.2. GARAPENA

3.22. Garapen ekonomikoaren oinarriak

Garapen teknologikoa+energia-iturri eraginkorrak= ▲Gaitasun produktiboa= Lanaren banaketa eta espezializazioa

3.23. Industria-ekonomikoaren oinarriak

Energia iturri berriak+ Berrikuntza teknologikoak= ▲Eskala-ekonomikoak = Kontzentrazioa, enpresak geroz eta handiagoak, soldatapekotze prozesua, ▼Autonomo eta enpresarien kopurua

3.24. Hazkundera eta garapena. Ikuspegi alternatiboak (planteamendu alternatiboak)

- A. Hazkundera (BPG) maximizatzea
- B. Garapen iraunkorra
- C. Deshazkundera
- D. Gaitasun produktiboa maximizatzea

3.25. BPG. Hazkunderaren erreferente

- Hazkundera garapen ekonomikoaren neurri gisa
- Hazkundera: ▲ Ondasun eta zerbitzuen ekoizpena/ produkzioa (▲BPG)

- Kritika: Ez du zentzurik lurralde bakoitzeko prezioen maila ez bada kontuan hartzen. EAP (Erosteko Ahalmen Parekatua)ren arebera neurtu beharko litzateke BPGa.
- Kritika: Ez du zentzurik ez badira kontuan hartzen biztanle kopurua eta biztanleriaren hazkundera: Biztanleko BPG/Errenta per capita
- Garapen ekonomikoaren ohiko kontzeptua hazkundera da eta horren adierazlea BPGa.
 - Barne Produktu Gordina (BPG): Urte batean herrialde batean sortutako errenta
 - Ekonomia baten neurria; urtero banatzeko dagoen aberastasuna
 - BPG= Urte baren herrialde batean sortutako balio erantsiak/produkzioa sektore guztietan: Nekazaritzan + Industrian+ Zerbitzuetan
- Biztanleko BPG= Errenta per capita= Ekonomia baten batz besteko bizitza maila
 - Horren arabera sailkatzen dira herrialde aberatsak (garatuak) eta pobreak (garapen bidean)
 - Herrialdeen artean biztanleko BPG adierazteko tresnak:
 - Merkatuko truke tasak (Moneta ezberdinak erabili ezker)
 - Erosteko Ahalmen Parekatua (EAP-PPA)

3.26. Zorpetze arazoak

Zorrak handiagotzerakoan, dituzten errenten arabera baino ondasun eta zerbitzu gehiago erosteko aukera dute gizakiek. Eta enpresek eta gobernuak ere, dituzten sarreren arabera baino gehiago. Horrela, BPGa handitu egiten da. Baina zorpetzearen ondorioz: eskuratutako dirua itzuli eta interesak ere ordaindu behar dira, beraz, gizakiek, enpresek eta gobernuak duten gastatzeko ahalmena murrizten da. Horrela, BPGa murrizten da.

Zor horien ordainketa atzeratuz, hurrengo belaunaldiaren lepotik aberasteko aukera izan dezake belaunaldi batek. Metatutako zor horiek ordaindu beharko dituelako hurrengoak. Horixe gertatu da Europan 70ko hamarkadatik aurrera. Garai (neo)liberalaren "hazkundera", neurri handi batean, gero eta zorpetze maila handiagoan oinarritu da eta.

3.27. Hazkunderaren mugak

-1970ean, hazkunderaren mugekiko kezka zabaldu zen.

-1980an, hainbat arazo/erronka berri aurkeztu ziren:

Industrializazioaren ondorioz aire eta itsasoaren kutsadura, ozono-geruzaren desagertzea, ur gezaren eskasia, petroleoaren agortzea... Sistema ekonomikoa eta oreka bateraezinak ote?

- Thomas Malthus: Biztanleria progresio geometrikoan hazten den bitartean, elikagaien produkzioa progresio aritmetikoan baizik ez da hazten. Beraz, biztanleriaren hazkundera ez da eutsigarria
- Erromako kluba: Neo-malthusianismotik hurbil zegoen zientzialari eta politikoen osatutako taldea.

3.28. Garapen iraunkorra. Kontzeptua

- Brundtland txostena= Ingurugiro eta Garapenerako Munduko Batzordea= GARAPEN IRAUNJORRA, "gaur egungo belaunaldiaren beharrak asetzen ditu, etorkizuneko belaunaldiek beren beharrak asetzeko gaitasuna arriskuan jarri gabe"

- 3 kontzeptu biltzen ditu:
 - Iraunkortasun ekonomikoa: Oraingo hazkunderak ez du konprometitu behar etorkizuneko hazkundera. Adb: Lehengaien agorpena, gain-zorpetzea, jaiotza-tasa...
 - Iraunkortasun soziala: Oreka sozialak, aberastasunaren banaketa, lanaldia, elkarbizitza, etb...
 - Ingurugiro-iraunkortasuna

3.29. Deshazkundera

- Deshazkunde kontzeptua antiglobalizazioaren gizarte-mugimenduetan sortu zen, etengabeko hazkunderaren ideari aurre egiteko asmoz.
- Latouchen arabera kontsumo-gizartearen zirkuluak honakoak biltzen ditu:
 - Publizitatea: kontsumitzeko desioa sortu
 - Kreditua: Bitartekoak eskaintzen ditu
 - Programatutako eta azeleratutako zaharkitzapena: beharrak berritzen ditu

3.30. Gaitasun produktiboaren helburua

- Biztanleko gaitasun produktiboa handiagotzea erreferentzia gisa
- Horretarako: Gaitasun energetiko eta teknologikoa, azpiegiturak eta gizakien batz besteko prestakuntza sustatu behar dira
- Ez du nahitaez eskatzen produkzioa handiagotzea
- Gizarte bakoitzaren helburuen arabera, hauek izan daitezke ondorioak:
 - Produkzioa handiagotu
 - Lanaldia murriztu
 - Iraunkortasuna sustatu
 - Bizitzaren kalitatea hobetu

3.31. BPGri kritikak

Barne Produktu Gordina askotan izan da kritikatu:

- Produkzioa eta hazkundera neurtzeko arazoak:
 - Autokontsumorako produkzioa eta merkatutik kanpo diren etxean egindako lanak eta zaintzak ez dira kontuan hartzen= jarduera ekonomikoaren azpibalorazioa, etab...
- Ondasun- eta zerbitzu- produkzioa ez da ongizatearen adierazlea:
 - Ez da kontuan hartzen errentaren banaketa= BPGa berdin-berdin handitzen da biztanle aberats eta biztanle pobre baten euro batekin
 - Berdin-berdin kontuan hartzen da elikagaien eta armen produkzioa= ongizatea bultzatzen (kaltetzen) duten jardueren azpibalorazioa (gainbalorazioa)
- BPGak ez du kontuan hartzen sostengarritasun ekologikoa:
 - Ez ditu ezberdintzen jarduera kutsakorrek eta ez-kutsakorrek= ez da kenketarik egiten ingurugiroa kaltetzean, are gehiago, kutsadura kentzeko gastuak batzen dira
 - Ez du kontuan hartzen natur baliabideen desgastea (hazkunde ekonomikoaren gainbalorazioa)

3.32. Giza garapenaren indizea

- 1990tik Giza Garapenaren Indizea kalkulatzeko Nazio Batuen garapenerako programak hiru ardatz erabiltzen ditu:
 - Bizitza luze eta osasuntsua izatea

- Ezagutza-maila
- Bizitza duina izateko beharrezko baliabideak eskuratu ahal izatea
- Jakina, giza garapenaren kontzeptua indize batean bildu daitekeena baino zabalagoa da, eta honakoak ere kontuan hartu beharko lirateke: Askatasun politikoa, ekonomikoa eta soziala; bizitza sormenduna/produktiboa izateko aukera; giza eskubideen bermea,...
- Giza Garapen Indizea kalkulatzeko biztanleko errenta zibat eta handiagoa izan, orduan eta eragin txikiagoa haren eragina (logaritmoak erabiltzen dira)
- Hala ere, indizeak eslatzen dituen emaitzak ez dira gehiegi aldentzen biztanleko errentaren araberrako emaitzetatik.

3.33. Generoa eta garapena. Lanaren dibisio tradizionala eta XX.mendea

Gizonek eta emakumek betidanik pairatu dute generoaren aranerako lan banaketa: Gizonek lan "produktiboa" egiten zuten. Emakumeak aldiz, etxeko lanetaz arduratzen ziren.

XX.mendean:

- Aurrerapen teknikoan ondorioz, indar fisikoak garrantzia galdu zuen lan "produktiboan"
- Geroz eta erakargarriagoa bihurtzen da lan "profesionala"

3.34. Emakumea lan-merkatuan sartzea

XX. mendeko 70ean: Ipar Europako Mugimendu Feministak emakumearen laneratzea lortzen du: Ezin daiteke oinarritu familiako asteko 40 lan orduetara gehitzean baizik eta lana banatzean oinarritu behar da, etxeko lana zein merkatukoa.

Hala ere, horren aurkako gertatu zen hain zuzen ere: Familia bakoitzeko asteko 40 lan ordu gehitzen dira. Argi geratzen da prozesuaren helburua ez zela izan emakumearen emantzipazioa, lan esku merkearen horniketa sustatzea baizik.

3.35. Emakumea lan-merkatuan sartzeko prozesuaren ondorioak

- Familien lanaren gain-ustiapena
- Lansari 1/ 5,2 gizakitik lansari 2/ 3,2 gizakira igarotzen da (lansari 1/ 1.6 gizaki)
- Kontsumorako gaitasuna handiagotzen da
- Ehundaka milioi emakumeren gain-esplotazioa hainbat belaunalditan: Asteko 80.90 edo 100 lanordu.
- Astialdiaren murrizpen nabaria
- Jaiotze-tasaren gainbehera

Oinarritzko helburua: Enpresen etekina sustatu, lanesku merkearen horniketa erraztuz

Akats kontzeptala: Etxeko lana ere lan produktibotzat ez hartzea

3.36. Genero-desberdintasunen indizea

- Emakumearen desabantailak gizonarekiko 3 dimentsiotan:
 - Ugalkortasun-osasuna
 - Ahalduntze/jabekuntza
 - Lan merkatuan partaidetza
- Genero desberdintasunaren indizearen (GDI) osagaiak: Ugalketa-osasuna, jabekuntza eta lan-merkatua
- Indizeak ez ditu dimentsio garrantzitsuak kontuan hartzen, datu falta dela-eta: denboraren erabilpena, jabetza-eskugarritasuna, lanbide-banaketa, soldata arrakala...
- Genero-ezberdintasunaren indizea ez dago lotuta giza garapen indizearekin, baina emaitzek agerian jartzen dutenez badago erlazioa: giza-garapen indizea txikiagoa den herrialdeetan, genero-ezberdintasuna handiagoa da.

Emakumeek eta gizonek lanbidean duten jokabideak ez dira oraindik berdinak.
Emakumeak, orain gutxirarte:
Jarduera tasa txikiagoa
Lansari txikiagoa
Behin-behinekotasun handiagoa

4. GAIA LAN-MERKATUA

4.1. Lan-merkatua jarduera ekonomikoaren zirkuituan

Ekonomia jardueraren zirkuituan merkatu hauek ditugu:

... Produktu eta zerbitzuen merkatua

... Ekoizpen-faktoreen merkatua

Ekoizpen faktoreen merkatuaren barne, 3 merkatu hauek ditugu: Lan merkatua, kapital merkatua eta higiezin merkatua (lurra).

Guk lan merkatua aztertuko dugu, GLrekin lotuta dagoen merkatua delako.

4.2. Biztanleria aktiboaren kontzeptua

BIZTANLE POTENTZIALKI AKTIBOAK: Lan-merkatuan parte hartzeko

aukera duten pertsonak 16-65 urte artekoak. Aktiboak: lanean daudenak+ez aktiboak: lana nahi dutenak baina lortzen ez dutenak

BIZTANLE AKTIBOAK: lanean dauden pertsonen eta langabezian baina lan bila aktiboki ari direnen batuketara.

BIZTANLERIA EZ AKTIBOAK: 16 urte edo gehiago dituztenak eta landunak edo langabetuak ez direnak osatzen dute (ikasleak, pentsionistak, etxeko-andreak etab.); baita etsituak ere.

DESANIMATUAK ETSITUAK: langabe bezala kontuan hartu beharko liriateke "benetako" langabezia-tasa ezagutzeko (kontrakoa kontraturik gabe ari diren langileekin). Ez aktibo moduan hartzen dira.

4.3. Biztanleria okupatuaren kontzeptua

Landunak (okupatuak): Enplegu ordaindu bat dutenak edo jarduera bat beregain daramaten eta lanean dauden pertsona guztiak dira (denbora osoan edo erdian; behin behinekoak ala behin betikoak..).

Langabeak: soldatuko enplegurik edo enplegu independenterik ez duten eta, une honetan, lanean hasteko enplegua bilatzen ari diren pertsonak dira

4.4. Jarduera tasa

JARDUERA-TASA: populazio aktiboa zati lanerako adinean dagoen biztanleria da.

Jarduera-tasa: Bizt. aktib. /Bizt. potentzialki akt. x100

4.6. Lan-merkatuko informazio iturriak

- INE: Biztanleria Aktiboaren Inkesta (Encuesta de Población Activa, EPA).
- EUSTAT Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA) sailkatzeko inkesta.
- SEPE/LANBIDE: izena emandako langabetuak.
- GIZARTE SEGURATZA: langileen afiliazio-datuak.
- NAZIOARTEKOAK: Eurostat (Europar) eta OIT (Mundu mailan)

4.7. Enpleguaren eta langabeziaren bilakaera

Euskal Herrian Espainiarekin alderatuta bajuagoa da langabezia-tasa. Krisi garaian langabeziak gora eginten du eta krisia gairatzerakoan behera. Hau da. Langabezi tasa krisi garaian igo eta gero jaitsi egin dala..., langabezia eta BPGren bilakaera lotuta dagozala edo pobrezia eta langabezia ere.

ENPLEGUAREN BILAKAERA:

Desenplegua eta bere eragin ekonomiko, sozial, familiar eta pertsonalak.

Langabezi tasa asko igo zen 2007tik 2012ra eta beherantz jo zuen hortik aurrea. BPG eta langabeziaren bilakaera guztiz lotua dago.

Langabeziak ez die denei berdin eragiten. Adibidez: Emakumeak, etorkinak, gazteak, 50 urte baino gehiagokoak, hezkuntza-maila baxua...

4.8. Lan-prekarietatearen adierazleak

Gizartean ikuspegitik prekarizazio moduan ikusten dena, enpresen ikuspuntutik malguntasuna ikusten da.

- Lan-malgutasuna: lan-merkatuak aldaketetara egokitzeko duen gaitasuna
 - aldaketa teknologikoak
 - eskariak sortutako aldaketak...
- Kanpo malgutasuna: lantaldearen kopurua doitzeko ahalmena, baldintza ekonomikoak aldatzean, enpresaren egoera aldatzean. Funtsean, langileak oztopo gutxirekin kontratatu edo kaleratu ahal izatea.

4.9. Lanaldi partzialeko lanak. Abantailak eta desabantailak

- Lanaldi partziala onuragarria da borondatezkoa denean.
- "Beste aukerarik ez dagoenean" prekarietate arazoa bihurtzen da
- Batzuk esan: sustatu in behar da lanaldi partziala aukera on bat delako eta beste batzuk prekaritate modu bat dela esaten dute eta beraz honen aurka daude.

4.10. Barne malgutasuna eta kanpo malgutasuna

KANPO MALGUTASUNA

- Sarrerako malgutasuna: kontratu mota ezberdinak
- Irteerako malgutasuna: kontratua irautzeko aukerak; irautze-kostuak, irautze motak, prozedura administratiboen konplexutasuna, etab.
- Kanpo malgutasuna lortzeko beste bideak: Aldi Baterako Lan Enpresak (ETTak), subkontratazioak...

BARNE MALGUTASUNA: kanpo doikuntzetara jo gabe, enpresaren barnean lana berrantolatu

- Kopuruzko barne-malgutasuna: ordutegi-aldaketak, mugikortasun geografikoa, funtzionala
- Soldata-malgutasuna: soldatak doitzeko gaitasuna; soldataren egiturarekin erlazionatuta, osagai finkoa eta aldakorra (hitzarmen kolektiboak)
- Malgutasun kualitatiboa: kooperazioa, trebakuntza berrikuntzara egokitzeko, etab. (Kontratatuta dauden langileetan aldaketak egiteko malgutasuna)

4. 11. eta 4. 12. Langabezia beharrezkoa al da? Nola murriztu daiteke?

- Garrantzirik duen langabeziarik gabeko sistemak:
 - Sistema sozialistak (Bielorrusia, Txina, ...)

- Kooperatibagintza: Arazoak dituztenean merkatuan, lana banatzen dute langileen artean, soldata jeitsi.. (Edozein neurri langileak bota aurretik)
- **ERRONKA TEORIKOAK:** - Beharrezkoa al da Langabeziaren bildurra lan egiteko pizgarri gisa?
- Langabeziarik ez badago ... nola egingo diete aurre enpresek salmenten jaitsierei?
- Langabezia enpresen jardueraren esternalitate (kanpo-eragin) gisa
- Langabezirik gabe, langileen efizientzia agian jeitsi daiteke, horren bildur ez direlako.

Nola murriztu langabezia?..

- A. Dagoen lana banatuz
- B. Ekonomia jarduera sustatuz: Langabezian edo langabezia arriskuan daudenentzat
- C. Lan merkatutik gizatalde batzuk ateraz:Jubilazioa aurrertu lanpostu berriei bideak irekitzeko.
- D. Eskaintza eta eskariaren arteko harremana doitzuz: lan bilaeta lana eskaintzen duten enpresen harremana bultzatuz.

A. Dagoen lana banatuz:

Makroekonomian(lanean dauden llanaldiak murriztu eta beraz jende gehiago kontratatuko dute) Enpresa mailan:

... KurzArbeit politika(Alemania): lanaldia murriztea

...Kooperatibak: Soldatak edo lan orduak banatu langile guztien artean.

... Bielorrusia (praktikamente sin desempleo)

- Ekonomia jarduera sustatuz
- Lan merkatutik gizatalde batzuk ateraz. (jubilazioaz, lanekiko interesa galduz..)
- Eskaintza eta eskariaren arteko harremana doitzuz. (prestakuntza lan postu zehatzetarako, bitartekaritza..)

4.13. Gizonen eta emakumeen arteko lanaren dibisio tradizionala

LANAREN BETIKO BANAKETA

.. Gizonak – Zuzenki "produktiboa" den lana

- Emakumeak: Etxeko Lana

XIX. MENDEA Gizarte Politiken eta Sindikatuen Helburuak: Emakume eta umeen lana murriztu / debekatu. (lan gogorak zirelako)

XX. MENDEA Indar edo zailtasun fisikoa, gero eta garrantzi gutxiago ekoizpen zuzeneko lanpostuetan, teknologiaren ondorioz. Emakumea lan-merkatura modu masiboan sartzea bideragarria bihurtzen da.

EMAKUMEA MODU MASIBOAN LAN-MERKATURA SARTZEA Sobiet Batasuna: Bigarren Mundu Gerraren ostean Mendebaldea: 70etatik aurrera

4. 14. Emakumea lan merkatuan sartzea

- Ez da gauzatzen aurretik zegoen lanaren banaketa moduan.
- Benetako helburua ez zen emakumearen emantzipazioa, laneku merke gehiago eskuratzea baizik.
- Familia bakoitzaren lanaldiari 40/45 ordu gehitzen zaizkio.
- Emakumeak, lanaldi osoak+ etxeko lanen ardura hartzera behartuta daude (ezinezkoa praktika).
- Ehundaka milioi emakumeen gain-esplotazioa, asteko 80/90/100 orduko lanaldietan eta ondorioz, jaiotza-tasak behera egiten du.

- Emakumearen laneratze geldoa eta zaila. Etxeko lanaren etengabeko zama izkutua.
- Zaila da lanbidea eta etxeko lana bateratzea.
- Aldarrikapenerako gaitasun gutxiago, sindikalizazio maila txikiago

4.15. Emakumeak eta gizonak. Portaera desberdinak lan merkatuan

Emakumeek eta gizonak lanbidean dituzten jokabideak ez dira oraindik berdinak. Emakumeek:

- Jarduera tasa txikiagoa
- Langabezi tasa handiagoa
- Behin behinekotasun handiagoa
- Lansari txikiagoak
- Soldata baxuagoak jasotzen dituzte


4.16. Etxeko lanaren eta haren banaketaren eragina

Prozesu horren ondorioz, emakumeen ganean jausi dan lan karga haundia, gizonena gero eta gehiago. Emakumeen gain hasieran 40h, hau aldatuz joan da gutxinaka. Hau da: Etxeko lanaren hasierako orduak hasiera batean emakumeentzako gain-karga izugarria izan dala, baina gero eta gehiago gizonekoentzat be bai. Eta, oro har, denok pentsatu dogula aurrerapen ekonomikoarekin batera gero eta lan gutxiago egingo gendukela eta, errealitatean, juxtu kontrakoa gertatu dala: gero eta lan gehiago, batez be emakumeentzat.


4.17. Emakumeen jarduera tasa eta jaiotza tasa

Emakumeak lanean hasi, jaiotza tasak behera

EMAKUMEEN JARDUERA TASA ETA JAIOTZA TASA. ESPAINIA



Fuente: EUROSTAT / S. Gómez / C. Martí



4.18. Kontziliazioa, erronka historikoa. Estrategia eta tresna publikoa

Egoera honi aurre egiteko:

• Familien estrategiak kontziliatzeko

- Jardunaldi partziala: "soldata bateko edo biko" eredutik "soldata eta erdiko" eredura (gehienetan emakumeak).
- Emakumeen lanaldi bikoitzak/hirukoitzak
- Zabaldutako familia (amonak/aitonak...). Etxeko lanaren karga hauen esku uztea.

• Kontziliatzeko neurri publikoak:

- Lan baimenak: Amatasuna, aitatasuna, edoskitzea (lactancia), ordutegi-malgutasuna, jardunaldi partzialak...

- Mendeko pertsonak zaintzeko zerbitzu publikoak (zahar egoitzak, haurtzaindegiak)
- Familiei transferentzia ekonomikoak, baina...
Merkatuko lan batek ematen dituen eskubideen aldean garrantzi gutxi

4.19. Kontziliazioa. Zalantza handi bat

- Zein punturaino da posible, kontziliaziorako laguntza edo neurri zehatzen bitartez, azken hamarkadetan gehitutako asteko 40 lan ordu horien arazoa konpontzea?
- Hauxe da, ziur asko, kontziliazio, emakumeen emantzipazio eta jaiotza-tasen politiken erronkarik zailena.

4.20. Lan merkatua eta genero arraila/arrakala

- Oso kontzeptu nahastua. Kontua ez da "lanpostu zehatz" baterako lansaria ezberdina izatea emakume eta gizonentzat. Oso gutxitan gertatzen da hori. Lan postu ezberdinak okupatzen direlako eta bestetik feminizatutako sektoreengatik, oso gutxi kualifikatuak daudelako.

- Funtsezko erronka: "FEMINIZATUTAKO SEKTOREAK":

.. Sektore hauen lansariak baxuegiak dira, proportziotik kanpo. Arrazoiak: betidanik emakumeen eskuetan egon den sektoreak izan dira. Beraz, lansariak babesteko eta sustatzeko indar gutxiago, aldarrikatzeko grina gutxiago, sindikalizazio maila txikiagoa. (Etxeko bigarren soldata zen eta...): Pertsonen zaintza, garbitzaileak, ...

4.21. Emakumea zuzendaritza prostuetan

- Lehenengo mailan, modu nabarian, Errusia (%45 gutxi gorabeherako berdintasuna)
- Sobiet Batasuneko kide izan ziren herrialdeak (%35-%40)
- Asia Ekialdea (Japoi salbu), %30etik gora (txina: %30)
- Mendebaldea, Erresuma Batuko %21 eta Italiako %29 artean. (España %26), Irlanda salbu (%19), Holanda (%18) eta Alemania (%15).

Ondorio moduan...

- Faktore kulturak eta soziologikoak (Ekialdeko Asia)
- Benetan gauzatutako politiken garrantzia (Errusia eta inguruko herrialdeak)
- Mendebaldeko emakumeen emantzipazioarako mugimenduen eragin hutsala (Mendebaldeko Europa eta Estatu Batuak)
- Emakumearen emantzipazioari buruz gehien hitz egiten duten herrialdeak, eragin gutxienekoak dira errealitatean.
- Bereziki deigarria da teoriar mugimendu feministen bultzatzaileak izan diren herrialdeen kasua: Erresuma Batua (%21) eta Estatu Batuak (%23)

4.22. Lan denbora, egiteke dagoen galdera handi gisa

- Benetan posible da Mendebaldean emakumearen lan-emantzipazioa lanaldia ez bada murrizten modu nabarian? (Azken belaunaldietan familia-unitatearen lanamari gehitu zaizkion 40/45 ordu horien zati garrantzitsu bat behintzat berreskuratuz)

- Horrela bada, zergatik ez da horretaz hitz egiten?

4. 23. Migrazio fenomenoaren oinarria

- Lan-immigrazioaren gertaeraren helburua ez da elkartasuna. Tamalez, lan-esku merkea eskuratzea baizik ez du helburutzat.
- Ziur asko, emakumearen merkaturatze masiboaren antzeko testuinguru baten ondorioa da:
 - .. 1. EPEALDIA (Herrialde batzutan) 70. urteetatik aurrera/ Emakumearen laneratzearekin batera
 - .. 2. EPEALDIA 90. urteetatik / Behin emakumeen laneratzea agortuta lan-esku merkearen iturri gisa.

4.24. Emakumeen laneratze eta migrazioa

54TIK 56RA

(a) Antzeko helburuak izan dituztela gertaera biak: Lan-esku merkea hornitzea

b) Denboran zehar, gertaera biak lotu. Hau da: Atzerriko migrazioaren lehenengo fasea (70-80etan herrialde batzuetan), neoliberalismoaren hasierarekin eta emakumeen laneratzearen bultzakadarekin bat datorrela. Eta bigarren fasea (90etatik aurrera) bat datorrela emakumeen laneratze prozesuaren agortzearekin ...)

4.25. Enplegu-politika motak

lan-merkatuaren funtzionamendu ona eta biztanleriaren lan-baldintza egokiak ahalbidetzeko hartutako ekimen publikoek osatzen dute. Hiru eratakoak izan daitezke:

- Erregulazio politikak,
- Politika pasiboak
- Politika aktiboak.

• Erregulazio politikak lan-merkatuaren funtzionamendu egokia ahalbidetzen duten araudia garatzen dute.

• Besteak beste: kontratazio-erak, kaleratzeak, negoziazio kolektiboa, Gizarte Segurantzako kotizazioak...

4.26. IFREM

Indicador Público de Renta de Efectos Múltiples (IPREM) Espainian erabiltzen den indizea da, pertsonen aldeko laguntzak edo subsidioak emateko orduan. 2004ean sortu zen, Gutxieneko Lansari Interprofesionala (SMI) delakoa ordezkatzeko diru-laguntza hauetan.

SMI lanbideen esparruan geratu zen eta IPREM pertsonen aldeko laguntzen esparruan.

4.27. Langabeen aldeko errenta motak

- Enplegu-politika pasiboek langabeziaren ondorio latzak apaltzeko helburua dute, diru-sarrerak eskainiz.
- Adin handikoen enplegu-galera kasutan, aurrejubilazioak eskainiz
- Langabetuei errentak (SEPESek kudeatuak) 2 eratakoak dira:
 - desenplegu-prestazioak (kontributiboak) eta
 - desenplegu-subsidioak (ohikoak + ezohikoak).

4.28. Maila-kontributiboko langabezia-prestazioen kalkulua

Jasotzen dugu kuota ordaindu ditugulako, hua da, aurretik kontribuitu dugulkao.

- A. Zenbateko Oinarri Arautzailearen arabera: Azken 180 egunetako Oinarri Arautzailearen arabera (soldataren antzekoa)
- B. Prestazioa: Oinarri Arautzailearen %70(hasieran) - %50 gero hilabeteko
- C. Iraupena: 120 egun eta 720 egun artean
- D. Gutxienekoa eta gehienezkoa IPREM-en arabera kalkulatu.(seme alabak daudenean eta ez daudenean)

KONTRIBUZIO MAILAKO LANGABEZIA PRESTAZIOAK

Zenbatekoa: Langile bakoitzaren Oinarri Arautzailearen arabera.

Oinarri Arautzailea: Azken 180 eguneko Lan Istripu eta Lanbide Gaixotasunen Oinarrien batz bestekoa, ordu extrak kenduta.

4.29. Langabezia subsidio arruntak

ENPLEGU POLITIKAK: PASIBOAK ETA AKTIBOAK

- Desenplegu prestazioak: kontribuzio-izaera dute, Gizarte Segurantzaren urtebetez edo gehiagoz kotizatu dietenei ematen zaie.
- Iraupena: 4 hilabete eta 2 urte bitartean..

DESENPLEGU SUBSIDIOAK:

izaera asistentziala dute (ez-kontribuzio izaera), eta kontribuzio-izaerakoak baino laguntza apalagoak, zeinentzat:

- Kontribuzio-laguntzak xahutu duten pertsonentzat
- Denbora nahikoz kotizatu ez duten langileentzat
- Genero indarkeriaren biktimak
- Diru-sarrerarik gabeko pertsonak

Enplegu politika aktiboak langabezia murrizteko xedea duten horiek dira.

Langabetuen lan-txertaketarako gaitasuna hobetzea, lan-formakuntzako programen bitartez, kolektibo desfaboratuenak kontuan hartuz (gazteak, emakumeak, iraupen luzeko langabetuak, ezgaituak, etab.)

- Iraupena: 6 hilabete —interesdunak aurretik eskatuta— , iraupen berbereko beste bi epez luza daitezkeenak gehienez 18 hilabete arte (zenbaitetan 24 hilabete arte)
- Kopurua: IPREM-aren %80

4.30. Langabeziarako ez ohiko subsidioa

DESENPLEGUAREN SUBSIDIOA AGORTU DUTEN EPE LUZEKO LANGABETUENTZAT:

- Gehienezko luzapena: 180 egun.
- Kopurua 2019: IPREMaren %80

4.31. Enplegu politika aktiboak

•Enplegu politika aktiboak langabezia murrizteko xedea duten horiek dira.

- Langabetuen lan-txertaketarako gaitasuna hobetzea, lan-formakuntzako programen bitartez, kolektibo desfaboratuenak kontuan hartuz (gazteak, emakumeak, iraupen luzeko langabetuak, ezgaituak, etab.)

- Politika aktiboen helburua: enplegu sorrera bultzatzea
 - Kontratazioa erraztuko duten kontratazio era berriak ezarriz
 - Subentzio eta dedukzio fiskalak eskaintzea lan-kostuak apaltzeko
 - Enplegu publikoa sortzea
 - Autoenplegua eta kooperatibak bultzatzea
 - Enpresa-izipiritua indartzea

5.1. Ongizatearen Estata. **Zer da**

Hiritarren ongizatea eta bizi-kalitatea xede duten Estatuaren eskuhartze eta ekimenek gorpuzten duten egitura instituzionala. (maila zentralean, autonomikoan edo lokalean eginak)

Neurri garrantzitsuak:

- Diru laguntzak edo trasferentzia soziala (Pentsioak edota familiei emandako laguntza)
- Zerbitzu publikoak (Osasungintza, hezkuntza, familiei laguntzeko zerbitzuak, zerbitzu sozialak, etxebizitza sozialak)
- Arau eta isun arloko eskuhartzeak (Langilearen, herrian eta kontsumitzailean babeserako)
- Enplegu ona/duina sortzea
- Desberdintasun sozialak murriztea (neurrien ondorioa)

Ongi zatearen neurri garrantzitsuen kontraesanak:

- Pobreziaren aurkako instituzioa, eta aldi berean diziplina soziolaborala mantentzeko instituzioa.
- Errentak birbanatzeko mekanismoa, eta aldi berean gizarte- eta lan-eremuko hierarkiak mantentzeko mekanismoa.

Ongizate-Estatuaren eragina hainbat modutan ebaluatu daiteke; Laguntzen estalduraren (unibertsalizazioa) eta intentsitatearen konbinazioa. Gizarte-babesan egindako gastua aztertzeko normalean intentsitate adierazleak erabiltzen dira.

Adierazle horiek erakundeek erabilitako baliabideak populazioaren arabera jasotzen dituzte, neurri erlatiboak.

5.2. Ongizate estatuaren adierazleak

Nola neurtzen da Ongizate-Estatuaren garapen-maila? Adierazle nagusiak.

- Gastu Publiko Soziala / BPGa (%)
- Biztanleko gastu publiko soziala (eros-ahalmen parekideak kontuan hartuta)
- Ongizate-Estatuaren zerbitzuetan lana egiten duen biztanleen portzentajea

5.3. Ongizate estatua. eredu frankista 60. urterarte

- Eredu zaharkitua: ez eskubideen kontzeptuan garatua baizik eta benefizientzia/karitatea...

- Biztanleek ez dituzte gizarte-zerbitzuak jasotzeko eskubideak.
- Ongizate-estatua apenas dago garatuta.

5.4. Eredu frankista 60. hamarkadatik

- **Espainia garatutako herrialdeen artean kokatu.**
- **Hazkunde ekonomikorako eredia, eta kontsumo-eredu neo-kapitalista egonkortu.**
- **Maila-ertaineko gizarte jeruza zabaldu.**

5.5. Ongizate estatuaren bilakaera frankismoaz geroztik

- 1983 eta 1993 artean hezkuntza- eta osasun- zerbitzuen eta pentsio-sistemaren unibertsalizazioa lortu zen. Ez da gauza bera gertatzen gizarte-zerbitzuekin.
- 1977-1997 bitartean gastu sozialaren hazkundera/murrizketa, aukera ekonomikoaren eta tirabira sozial eta sindikalen mende.
- 1980-1984 → industriaren berregituratzea
- 1985-1988 → modernizazioa eta azpiegiturak sortzeko beharra
- 1995-2000 → EBrekin bat egiteko presioak, defizita murrizteko beharra
- 90ko bigarren erditik aurrera Ongizate-Estatuan aldaketak
 - Ideologia neoliberalaren eraginez pribatizazioa + gizarte-babesaren asistentzializazioa (laguntza programa zehatzak, ez-unibertsalak...)
- Enpresa-pribatuek produzitutako eta Estatuak finantzatutako zerbitzuen hazkundera (kontzertu ekonomikok hezkuntza, osasun kudeaketa pribatua, kontzertuak gizarte zerbitzuan)
- Etxebizitza sozial gutxiago eta pentsiofuntza pribatuen hazkunde handia
- Zerbitzu publikoak produzitzeko orduan bolondresen eta gizarte-erakundeen garapena
- 2002an dezentralizazio-prozesua amaitu → Autonomia Erkidegoen protagonismoa politika sozialak planifikatzeko eta gauzatzeko. Hala ere, arazoak bidean.
- Egun, erreforma sozialak presio berriei aurre:
 - Barne aldaketak: populazioaren zahartzea, prekarietate laborala, Ongizate-Estatuaren etorkizuna adosteko zailtasunak...
 - Kanpo aldaketak: EBn Ongizate-Estatua ez da hedatzen, globalizazioaren eraginez sortutako presioak, Estatu Batuetan dagoen ereduaren eragina "gizarte errukitsua".
- Egile batzuen iritziz, eredu liberal/asistentzial baterantz gerturatzeko neurriak gailentzen ari dira: osasun arloan, lan-merkatuan (desenplegu programetan), eta pentsioetan.
- Beste batzuek, dualizazio prozesu baten kontzepzioa hobesten dute: zatiketa gero eta argiagoa lan-merkatuan integratutako biztanleen (gizarte-babes publiko indartsuarekin, kontribuzioerregimena), eta lan-merkatutik at geratu direnen artean (gizarte-babes txikia).

5.6. Ongizate estatuaren 4 ereduak europar

Ongizate Estatua Europar, 4 eredu:

- EREDU NORDIKOA/ESKANDINAVIARRA: efizientzia handikoa, ekitatiboa. Adibidez: Danimarka, Norvegia, Islandia, Finlandia, Suedia eta Holanda.

- EREDU KONTINENTALA: efizientzia handikoa, baina ez ekitatiboa. Adibidez: Austria, Belgika, Frantzia, Alemania eta Luxemburgo.
- EREDU ANGLOSAXOIA: efizientzia txikikoa, ekitatibo izateko zenbait ezaugarri. Adibidez: Irlanda eta Britainia Handia.
- EREDU MEDITERRANEOA: efizientzia txikikoa, ez da ekitatiboa. Adibidez: Grezia, Italia, Portugal eta Espainia.

Ongizate-Estatuak, modu orokorrean, 2 irizpideren arabera ebaluatu daitezke
 EFIZIENTZIA: ereduaren pizgarriak biztanle gehienak lana izateko, eta ondorioz, langabezia-tasa baxua.

EKITATEA: pobrezia-egoeran gelditzeko arriskua txikia bada.

Eredu nordikoa

Bizatanleen oinarrizko eskubideak unibertsalak dira, ez daude lotuta kotizazioekin, zenbatitetan konstituzioak bermatzen ditu eskubide horiek. Estatuak da gizarte babesaren garatea, tresnak globalak dira, finantzaketa zergen bidez lortzen da eta gizarte guztiak daude babestuta.

Eredu eskandinaviarrean beste ezaugarri batzuk:

- Gizarte politiken eremua zabala, arlo asko
- Gastu sozialaren % altua BPGan, birbanaketa altua
- Kalitatezko osasun eta gizarte zerbitzuak lurralde, probintzia eta udaletan
- Pobrezia oso mugatua dago
- Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna

Gainera, sektore pribatuak ekimenak guzatzeko askatasuna, lan merkatua nahiko liberala (sindikatuarekin adostutako hitzarmen kolektiboak kontuan izanda ere.) Politika aktiboetan egindako gastuak nahiko handiak dira, langabezia ahal bezain azkar lanean has daitezten berriro ere.

Honen truke, sektore pribatuak jasan beharreko zerga maila altua da, horri esker inor ez da baztertuta gelditzen langabezia dela eta.

Eredu kontinentala,

-

Eredu Eskandinaviarra (nordikoa)

- Biztanleen oinarrizko eskubideak unibertsalak dira, ez daude kotizazioarekin lotuta, eskubidearekin lotuta dago unibertsalizioa.
- Estatuak da gizarte-babesaren garatea, tresnak globalak dira, finantzaketa zergen bidez lortzen da eta biztanle guztiak daude babestuta.
- Beste ezaugarri batzuk:
 - Gizarte-politiken eremua zabala
 - Gastu sozialaren % altua BPGan, birbanaketa altua
 - Kalitatezko osasun- eta gizarte-zerbitzuak (probintzia lurralde eta udaletan)
 - Pobrezia oso mugatuta
 - Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna

Gainera...

- Sektore pribatuak ekimenak gauzatzeko askatasuna, lan-merkatu nahiko librea
- Politika aktiboetan gastu handiak, langabezia ahal bezain azkar lanean hasteko. (enplegua sustatzeko politikak).
- Sektore pribatuak jasan beharreko zerga-maila altua (honi esker inor ez da baztertuta gelditzen langabezia dela eta)

Eredu Kontinentala

- Eskandinaviarraren antzekoa, baina gastuen parte handiagoa pentsioetara
- Segurtasun-printzipioan oinarritua, laguntzak ez hain lotuta enplegu bat lortzeko neurriekin
- Lan-merkatuan, politika aktiboak ez dira hain garrantzitsuak

Eredu Anglosaxoia

- Ongizate-Estatuaren garapena mugatu
- Asistentzia-mota: azken unekoa "last resort"
- Laguntzak lan egiteko adinean dagoen populazioari bideratuak → gutxiago pentsioetara
- Laguntzak lan egiteko neurri/aukerekina lotuta
- Lan-merkatuan, politika aktiboetan egindako gastuak garrantzitsuak

Eredu Mediterranearra

- Gastu txikieneko eredu → gastu handiena pentsioetara
- Gizarte-laguntzarako baliabide txikia
- Zatiketa handiagoa: Laguntzak jasotzeko baldintza asko
- Gizarte-laguntzarako baliabide urriak
- Lan merkatuan langilea oso babestuta + lan merkatua hobetzeko erretiroa aurreratu
- Familiak garrantzi handia
- Espainako gastua BPGan txikia.

5.8. Gizarte gastua euskadiko A.E.N

- Eustaten datuen arabera, EAEn gizarte-babesaren gastua BPGaren %24,2 izan zen 2018ean. EAE, datu horren arabera, EB-27ko batez bestekoaren, %27,9, azpitik da.
- Erreferentziako beste adierazle bati erreparatuz gero, biztanleko gastuari, EAeko biztanleko gizarte-babes gastua, erosteko ahalmenaren parekotasunean (EAP) neurturik, 8.741 izan zen 2017an.

Datu hori europar batez bestekoa (8.388) baino handiagoa da. Eta Espainian (6.234) Irlandan (7.453) edo Erresuma Batuan (7.992) baino altuagoa da ere.

Halere, aldea gutxituz doa: 2005ean ehuneko 7,9 puntu ziren; 2010ean, 4,8.

Erreferentziako beste adierazle bati erreparatuz gero, biztanleko gastuari, EAeko biztanleko gizarte-babes gastua, erosteko ahalmenaren parekotasunean (EAP) neurturik, 8741 izan zen 2017ean.

Datu hori europar batez bestekoa baino %9,7 handiagoa da. Batez besteko horren gaineratik 2007an jarri zen EAE. Espainiar batez bestekoaren gaineratik ere bada, %25,4. Funtzioen araberrako gizarte-prestazioen gastuari begiraturik, zati nagusia bi funtziotan metatzen da: "Adindunekikoa" eta "Gaixotasuna/Osasun arreta". Adindunekikoan pentsioak eta ostatu eta etxeko arretaren asistentzi-prestazioak daude; prestazio guztien %26,4.

"Gaixotasuna/Osasun arreta" gastua barne ditu aldi baterako ezgaitasunengatik prestazioak eta prestazio sanitarioak, eta guztiaren %28,4 da.

Langabezia funtzioaren gastuan langabezi-prestazioez gain enplegu-prestakuntzarako dugu; hirugarren da garrantzian, 2018ean gizarte-prestazioen %5,2. Azken urteotan (krisialdiaren ostean) gero eta txikiagoa izan da.

5.9. Gizarte gastuaren funtsezko xedeak Euskadiko A.E.N

Euskadiko AEn zeintzuk diran gastu sozialaren funtsezko helburuak

- Funtzioen araberako gizarte-prestazioen gastuari begiraturik, zati nagusia bi funtziotan metatzen da: "Adindunekikoa" eta "Gaixotasuna/Osasun arreta".
- Adindunekikoan pentsioak eta ostatu eta etxeko arretaren asistentzi-prestazioak daude; prestazio guztien %44,4.
- "Gaixotasuna/Osasun arreta" gastua barne ditu aldi baterako ezgaitasunengatikoko prestazioak eta prestazio sanitarioak, eta guztiaren %26,4 da.

5.10. Langabezia gastuaren bilakaera

Langabezia funtzioaren gastuan langabezi prestazioez gain enplegu-prestakuntzarakoa dugu; hirugarren da garrantzian, 2018an gizarte-prestazioen %5,2, Azken urteotan (krisialdiaren ostean) gero eta txikiagoa izan da.

5.11. Krisiaren eragina ongizate estatuan

Krisialdi aurretik, Espainian Ongizate-Estatua ez oso garatua (defizit soziala). Nolako eraginak ditu krisialdiak ongizatean, eta azken batean, biztanleek jaso dezaketen gizarte babes mailan?

Espainiako ongizate estatua erreformatzeko prozesuan ez dira antzematen lehen ere existitzen zirne ezberdintasun patrioiak zuzentzeko.

Krisiak erretiroa hartutako biztanleen eta gazteen arteko tartea handitu du: lan-merkatuan aktibo diren gazteen zailtasunak handiak dira, eta halere, laguntza gutxiago zuzentzen dira haien egoera hobetzeko.

Krisiaren ondorioz, larriagotu egin dira hiru gizarte-talde arteko desorekak:

- A. Orain arteko jubilatuak (jubilatu berrien arriskua)
- B. Lanean dauden adin nagusikoak
 - C. Lanean edo langabe dauden gazteak, gero eta baldintza txarragoetan daudenak, naiz eta lanean egon.

·Lana egiteko adinean diren pertsonak babesteko sistema ahula zela agerian gelditu da. Biktima nagusiak: baztertutakoak (gero eta gehiago), langabeak (batez ere, familiaren edo gizarte-sareen laguntza ez badute), eta lan bat bilatzen ari diren gazteak.

· EBN eta Estatu Batuetan krisiaren aurkako erabakiak izaera ezberdinekoak izan ziren nolabait ...

·Estatu Batuetan Obaman garaian, keynestar politikak hasieratik nagusitu ziren bitartean, EBN neoliberalismoa gailendu zen hasieratik.

·Hau dena egia da politika fiskalen ikuspuntutik bakarrik. Moneta Politikak oso hedatzaileak izan dira, bai AEBetan, bai Europan.

Etorkizunari begira, Espainian kezka

- Ongizate Estatuaren gainbehera, benetako aurrerapusia izan da Krisialdia.
- Bazterketa sozialeko arriskuak larriagotu dira
- Nahiz eta 2016tik Aurrera hazkunde bidean kokatu, joera sozial negatibo horiek ez dira zuzendu.

5.12 ongizate estatua eta garapen ekonomikoa

5.13. Ongizate estatuaren funtsezko oinarriak

-Garapen ekonomikoaren maila: Ongizate estatuarekin oso lotua.

-Sistema ekonomikoa:

.. Kapitalismoa / Sozialismoa
.. Eredu liberala edo soziala ...

-Gizarte ekimenaren garrantzia (Kooperatibek edo Mutualitateek kudeatzaile gisa duten dinamismoa). Eragina du gastu publikoaren mailan baina, batez ere, kudeaketa erduetan.

6.GAIA: EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOA

1. EKONOMIA SOZIALA

II mundu gerraz geroztik sorturiko ekonomia mistoek erantzun berriak emateko duten gaitasun ezaren ondorioz, Ekonomia sozialaren goraldia etorri zen. ¿Nola? "funtzio ekonomikoa eta soziala integratzeko gai diren enpresen bidez" hau da, "aberastasuna efizientzia ekonomikoz sortu eta ekitatez banatzeko gai direnen enpresen bitartez".

Espanian, 80 hamarkada hasieran, ekonomia sozialaren kontzeptua ia eskusiboki kooperatibismoari edo "mugimendu kooperatiboa"ri lotua zegoen. 1989tik aurrera, CIRIEC-España komisiio zietifikoak Ekonomia sozialaren definizio berria sortu zuen, eta bertan bi azpisektore bereizi zituen: -Merkatuko azpisektorea edo empresariala.

-Merkatukoa ez den azpisektorea.

- **Merkatuko azpisektorea edo empresariala:** Erakunde demokratikoa duten enpresek osatua (pertsonek bat, botu bat) eta kapitalari lotua ez dagoen irabazi banaketa dutenak. Kooperatiba eta Mutualitateak daude batez ere, baina... Eta ezinbestean, denek kudeaketa demokratikoa bete behar dute (pertsonek bat, botu bat), bai erabaki organuetan, bai irabazien banaketan.
- **Merkatukoa ez den azpisektorea:** Irabazi asmorik gabeko eta etxeguneen zerbitzuan diharduten instituzio pribatuak (batik bat asoziazio eta fundazioak). Merkaturik komertzializa dezakete, baina prezio ez-esanguratsuan; baliabideak gehienbat donazio, kuota edo subentzio bidez eskuratzen dituzte.

Ekonomia sozialaren printzipioak:

1. Pertsonek garrantzia
2. Etengabeko formakuntza eta sormena
3. Ekonomiaren demokratizazioa
4. Enplegu egonkorra eta kalitatekoa
5. Gizartearekin eta ingurunearekin konpromisoa
6. Bizi kalitatea

Ekonomia sozialaren formak:

Printzipio kooperatiboak:

- Borondatezko sarbidea, irekia
- Kudeaketa demokratikoa
- Parte hartze ekonomikoa
- Hezkuntza, formakuntza eta informazioa
- Komunitaterengatiko interesa
- Autonomia eta independentzia, ezein erakunde edo entitate publiko zein pribaturekiko
- Elkar-laguntza

Kooperatibak:

- Lehen graduko kooperatibak
- Bigarren graduko kooperatibak (kooperatiben kooperatiba)
- Jarduera ekonomikoari dagokionez.... Lan elkartukoak, etxebizitza, kontsumitzaile eta erabiltzaileenak, nekazal-, hezkuntzakoak, kreditu- etabar.

- Sozioak, gehienbat, langileak
- Erreserba funtsa, emaitzetatik

Elkarteak - Asoziazioak

Funtsezko ezaugarriak:

- Pertsona taldea
- Helburu edo jarduera amankomunak
- Funtzionamendu demokratikoa
- Irabazi asmorik gabe (ezin dira irabaziak banatu)
- Independentek

- Funtzio sozialaren araberrako sailkapena: kirola, kultura, gazteri
- Federazioak eta Koordinadorak, asozioazioen elkarteak.

Fundazioak

Interes orokorreko xede dira...

Giza eskubideen defentsa

Asistentzia soziala eta inklusioa

Garapenerako lankidetzak

Ingurugiroaren defentsa

Kirola

Hezkuntza

Osasuna

...

2.FORMA BERRIAK: EKONOMIA SOLIDARIOA

Ekonomia Solidarioa Ekonomia Sozialaren enborretik dator, eta produkzioa, banaketa, kontsumo eta finantza erlazio bidezkoak eraikitzea du helburu. Kapitala eta mozkinen ordez, Ekonomia Solidarioak pertsonak eta hauen lana jartzen ditu sistemaren erdigunean (merkatuak bitarteko). Beraz, ekonomia ulertzeko beste modu bat da, eraldatzailea.

+ Ideologia neoliberalak ez bezala, Ekonomia Solidarioak jarduera ekonomikoa bitarteko moduan erreibindikatzeko du (ez helburu moduan), beti ere pertsonen ongizatearen eta jendartearen garapeneraren zerbitzura. + Hortaz, Ekonomia Solidarioa azken hamarkadetan gorpuzten ari den gizarte mugimendua da, era askotariko erakunde eta jarduerak barnehartzen dituen (produkzioa, kontsumo, banaketa eta finantzak) eta pentsamendu eta praktika ekonomiko desberdinak eta alternatiboak sortu dituen.

Printzipioak:

1. Berdintasuna
2. Enplegua
3. Ingurugiroa
4. Lankidetzak
5. Mozkin asmorik eza
6. Inguruarekin konpromezua

Ekonomia Solidarioaren dimentsioa EAEn

EAEn ekonomia solidarioaren mugimendua nagusiki REAS Euskadi-ren inguruan antolatuta da (Red de Economía Alternativa y Solidaria). 1997an jaio zen eta gaur egun ia ehun inguru empresa eta erakunde barnebiltzen ditu.

Ekonomia Solidarioaren formak

Gizarteratze enpresak, Enplegu zentru bereziak, Banku etikoak, Bidezko merkataritza ... eta beste hainbat ekimen, hala nola, denbora bankuak, elikadura burujabetza, birziklapen enpresak, moneta sozialak...

Gizarteratze enpresak

- Pobrezia eta gizarte bazterketaren aurka borrokatzeko tresna gisa sortu ziren.
- Enpresa ekimenak dira, empresa logika eta gizarteratze logika batzen dituztenak.
- Nori zuzenduta: gizarte bazterketa egoeran edo arriskuan dauden kolektiboak, langabezian daudenak eta ohizko lan merkatuan lana aurkitzeko zailtasunak dituztenak. Besteak beste: drogomenpekotasuna izan duten pertsonak, preso ohiak, epe-luzeko langabetuak, derrigorrezko eskolaratzea amaitua ez duten pertsonak...

Helburu diren kolektiboak:

- Inserzio errenta minimoak jasotzen duten pertsonak
- Oso epe luzeko langabetuak
- Langabezian dauden eta derrigorrezko eskolaratzea bukatu ez duten gazteak
- Errehabilitazio prozesuan dauden drogomenpekotasuna izan duten pertsonak
- Preso-izandakoak langabezian daudenak
- Bestelakoak: gutxiengo etnikoak, inmigranteak, karga familiarak dutenak eta bazterketa egoeran dauden pertsonak

- Gizarteratze enpresetan lan-ibilbide bat eskaintzen zaie, beti ere ohiko lan-merkatuan laneratzeko helburuarekin (ikasteko plataforma gisa dihardute) - Hortaz, gizarteratze enpresek izaera transitorioa dute.

Enplegu zentru bereziak:

- Enpresa hauen xede nagusia ezgaitasunen bat duten pertsonen lana sustatzea da.
- Bideragarritasun ekonomikoa eta merkatuan partehartzea konpromiso sozialarekin batu nahi dute (lan merkatuan aukera gutxien dituzten kolektiboekiko konpromisoa). Eskeintzen dute:

Ordaindutako enplegua

Formakuntza Bizitza pertsonal eta sozialean laguntza etengabea

Enpresa Arruntetarako trantsizioa sustatzen dute

Finantza Solidarioak:

- Edozein sistema ekonomikok bitarteko eta bitartekari finantzarioak behar ditu.
- Finantza bitartekariak aurrezkiak gorde egiten ditu (gordailuak) eta dirua interes tasa baten truke mailegatu (maileguak).
- Beraz, helburua, eragin sozial positiboa duten proiektuak finantzatzea izango da, horrela proiektu eraldatzaileen finantza beharrak asetuz. Azken batean, finantza bitartekaritza irizpide etiko eta sozialen bitartez egitea.

Bideragarriak diren alternatibak proposatzen saiatzen da, partaideek (hiritarrak eta erakundeak) modu demokratiko batetan kontrolatu dezaketena.

Bitartekaritza finantzarioan ekimenak: Mailegu solidarioak eta mikrokreditu kudeaketa.

FIARE (banku etikoa)

+ 2003an Euskal Herrian banku etiko proiektu bat gauzatu zen: FIARE (Fundación de Inversión y Ahorro Responsable). + Irizpide solidario eta alternatiboak jarraituko duten

ekimenak sustatzea du helburu, finantza arloan diharduen kreditu kooperatibaren bitartez.

Banku etikoen ezaugarriak:

Jusitziaren zerbitzura emandako kredituak
Sare herritarren bidezko bitartekaritza finantzieroa
Aurrezki arduratsua, parte hartzea eta gardentasuna
Irabazien ez bidezko izaera eta interes komuna

Bidezko Merkataritza

- Pertsonen arteko eta herrialdeen arteko merkatal elkartrukeak era ekitatibo eta bidezkoan egiteko ekimenak (egun dauden botere harremanak hautsiz).
- Egungo merkatal harremanen aurrean alternatibak eraiki eta batez ere desabantailan dauden sektoreekin bidezko harremanak sortu.
- Normalean Iparra eta Hegoaldeko erakundeek osatzen dute.
- Nazioarteko merkataritzaren arau injustuak salatu eta eraldatzea da helburu, baita Hegoaldeko herrialdeen ekoizle txiki eta/edo baztertuen salmentak ahalbidetzea.
- Iparraldeko erakundeek, salaketa eta herritarren sentsibilizazio lana egiten dute, eta salmentan partehartzen dute inportazioa, banaketa edo zuzeneko salmentaren bidez.
- Merkatal harremanak hainbat printzipio jarraituz egiten dira: errespetua, elkarriketa eta gardentasuna, lan baldintza duinak bermatu, komunitate behartsuenen garapen lokala ahalbidetzea, etabar.
- Bitartekariak beraien marginak murrizten dituzte, ekoizleei mozkin tarte handiagoa uzteko.

Kontsumo arduratsua

- Egungo sistemaren kontsumismoaren aurrean... Ekonomia solidarioaren mugimenduak kontsumo arduratsua sustatzen du, hau da, kontsumo etikoa, ekologikoa, solidarioa, publizitate ezkorra salatuz, kontsumo superflua gaitsetsiz, bidezko merkataritza sustatuz, giza eskubideak errespetatzen ez dituzten enpresei boikota zabalduz, etabar.
- Kontsumitzaileek, beraien eguneroko keinu eta erosketen bidez gure jendartearen ekoizpen arau eta kontsumo ereduak aldatu ditzakete.

Ekonomia solidarioaren erronkak

- ikusarazi,sensibilizatu eta komunikatu
- Identitate politika indartu
- herritar kompromezua hazi
- Sareen lana sakondu
- Beste ekonomiekiko eztabaida sortu
- Beste eragile sozialekin aliantzak sortu
- Erakundeen kudeaketa azkartu